

Pablo Puertok bere tesia irakurri du

2013/11/12

Azaroaren 11n, eguerdiko 12:00etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Pablo Puerto Manrique Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Polo Garaiako Auditorioan. Tesiaren izenburua Desarrollo de sistemas de control inteligente para incrementar la productividad de procesos de rectificado y asegurar la integridad superficial de la pieza eta tesi zuzendariak: Ivan Gallego eta Jon Madariaga. Gainera Bikain CUM LAUDE kalifikazioa lortu zuen.

Epaimahaia horrela osatu zuen:

- Mahaiburua: Pedro José Arrazola Arriola (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.
- Mahaikidea: José Antonio Sánchez Galíndez (EHU-UPV) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Juan Luis González-Santander Martínez (Universidad Católica de Valencia) Dk. Jn.
- Mahaikidea: David Barrenechea Azpeitia (Ik4-Ideko S.Coop) Dk. Jn.
- Idazkaria: Jose Ignacio Marquinez Gonzalez (Ik4-Ideko S.Coop) Dk. Jn.

Artezketa prozesuak tolerantzia estuak eta zimurtasun bikainak dituzten piezak lortzeko aukera ematen du, baina erremintaren portaera aurreikustea oso zaila da. Horregatik egokitze kontrol bat garatu da. Egokitze kontrol honek ikuspegi artifizialaren arabera, potentzia kontsumoaren neurketaren arabera eta kendutako material bolumenaren arabera, prozesuaren parametroak doitzen ditu. Horrela, termikoki kaltetu gabeko piezak lortzen dira eta nahi den gainazal zimurtasuna lortzen da, produktibitatea handituz.



Pablo Puerto Manriqueren tesia